

B8

Consolaytan naiz da...

Martin Lopez Bikuñaren eskuak idatzi du poema hau. Ohi bezala, ez du lerro-banaketa arautu, eta, hortaz, hemen aurkeztu dugun lerro-banaketa erriman oinarriturik geuk asmatua da, baina badirudi bakoiti guztiak sei (edo zazpi) silabako libreak direla eta bikoitiak bost silabakoak, *-ez* errimarekin. Eredu metriko hau dauka B9 poemak ere.

Maitasunez sufritzen ari den maiteminduaren gaia da: maiteminez hilgo da, Jainkoak laguntzen ez badio laztanaren bihotza lortzen.

<1171v> Consolaytan¹ naiz da²

consola çaytez;

consolaytan nayz ni

veti negarres.³

On da⁴ pacencia⁵

5

¹ *Consolaytan*: ‘konsolaetan, kotsolatzen’. Martin Lopez Bikuñaren testuetan, *-ae > -ai* aldaketa oso ohikoa da, hala aditz-izenetan nola adizki jokatueta (*deusay* B6: 6). Gogoan izan *-aitan* bukaerako aditz-izenak Landucciren hiztegian (*ateraytea, aurreraytan, escaytan, escaytea...*) nola Oñatiko eskuizkribuan biltzen direla (*obligaitan, parcaitan, marcaitan, señaletan...*).

² *da*: ‘eta’.

³ *negarres*: Eskuizkribuko testu nagusian *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela. Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugariago dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaqustanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35).

⁴ *On da*: Artikulurik gabeko adjektibo predikatuak arruntak dira XVI. mendeko euskal eremu guztietako testuetan (cf. *çe eyquec maurtuti hoeaneâ, ederr eztanic calean* (RS 36)), gaur egun ekialdeko ezaugarritzat baditugu ere. Lazarraga eskuizkribuak ere baditu halakoak: *gazte cirean artean* (A11: 17), *Çu serviceco andi dot deseoa* (A17: 47), *On içango nax* (A26: 137), *cerren çu eder içanagayti* (A27a: 43)... Kasu honetan adjektibo predikatuaren subjektua (*pacencia sufridu valez*) izen konkretu izatetik urrun den gertaera abstraktua da, eta hori izan liteke predikatuak artikulurik ez hartzearen arrazoia; dena den, azalpen hau ez da segurua, adjektibo predikatu artikulugabe eta artikuludunen arteko txandakatzean ez baitugu patroï garbirik atzeman. Txandakatze honen ustezko arbitrariotasunarentzako, ikus *ezta mincor* (B9: 19) eta berehala datorren *ezta gacia* (B9: 24), biak ezeztapenezko perpausetan, irudiz aldagai berdinen menpean.

sufri al valez.⁶

Galteric⁷ asco jatort⁸

neure bearres:⁹

ene gau-egunoc

gucioc¹⁰ dolorez;

10

loric ecin eguin dot

⁵ *pacencia*: Euskaraz beti *pacencia*- forma (A23: 12, A27: 16 eta B8: 5) erabiltzen da Lazarragaren eskuizkribuan; erdaraz, ordea, *paciencia* (A18: 40). Ikusi baita *audenciaric* (B12: 3) forma ere.

⁶ *sufri al valez*: ‘(berorrek) sufritu ahal baleza’; mendebalde zein erdialdeko testuetan, adizkien erroko *-a* askotan galtzen da bukaera absolutuan gertatzen delarik (cf. *FHV* §6.4). Lazarragaren testuan, **ezan* (protasietan edo *b-* aurrikidun jusibozko formetan) eta *etzan* aditzek pairatzen dute erorketa: *lo ete naç* (AL: 1152r), *goarda badez* (A17: 14), *sufri al valez* (B8: 6). Berorika ari zaio laztanari, nahiz eta lehentxoago *consola çaitetz* esan duen; azken bertso-lerroan (*verorren* B8: 20) berriz ere berorika dihardu. Lazarragaren eskuzko poemetan ere aurkitu dugu *zu* eta *berori* nahastea (A7: 119, A16: 35 eta A23: 37).

⁷ *Galteric*: ‘kalterik’; cf. Lcc “pérdida, galtea”. Lazarragak, aldiz, *calte*- aldaera erabiltzen du: *andia jatort caltea* (A24: 6), *Langarican çaoz calteric* (A27: 14), *Jandoneanez calteric* (A28: 56) eta *oy asco calte andiric* (A28: 122).

⁸ *jatort*: ‘datorkit’; eskuizkribuan *jatorc* irakurketa aski ziurra da, baina zuzendu behar dela deritzogu hiru arrazoi hauengatik: (1) Poema guztian ez da hitanoko beste adizkirik agertzen; horren ordez, *naiz*, *çaytez*, *da*, *dot* modukoak aurkitzen ditugu. (2) Linschmann-Aresti legearen arabera, perpaus berean agertzen den *neure* izenordain indartuak eskatzen du adizkian lehen pertsona singularreko komuntzadura egotea; alegia, *jatorc* ‘zetorrek’ nahiz ‘datorkik’ zentzuan izanez gero, *ene* izenordaina esperoko gunque. (3) Pentsa daiteke kaltea (*galteric asco*) pairatu duena narratzailea bera dela, hurrengo lerroetan hauxe baitio: *ene gau-egunoc / gucioc dolorez; / loric ecin eguin dot / amoreminez, / [amoreminez] da / coyta-dolorez* (B8: 9-14). Bestalde, zuzenketaren alde erabakigarria gertatzen ez bada ere, ohartarazi behar da Lazarragaren poema batean antzeko egitura bat azaltzen dela: *andia jatort caltea* (A24: 6).

⁹ *bearres*: ‘erruz’; Lazarragaren eskuizkribuan, sei lekutan aurkitu dugu *bear* ‘erru’ (A16: 10, A27a: 22, B8: 8, B20: 33, B21: 36 eta B28: 6). Cf. *OEH*, s.v. *bear*: “‘Culpa, bearra’”, “culpar, bearr egotzi” Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. “Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. *RS* 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. *TAV* 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. *Mg CC* 189 (*CO* 284 *geuria izango da erruba*)”.

Hitz-amaierako txistukariaz, ikusi B8: 4 bertso-lerroko oharra.

¹⁰ *gucioc*: Hau da eskuizkribuko *guci* forma bakarra, Lazarragak, Landuccik bezala, *guzti* erabiltzen baitu (*passim*). *OEH*ren arabera (s.v. *guzti*), “*guzi* es la forma más frecuente en los dialectos orientales [...]”. Durante el s. XVII y principios del XVIII, sin embargo, se encuentra abundantemente *guzti*, junto a *guzi*, en autores labortanos [...]. Desde mediados del s. XVIII en la tradición septentrional se documenta sólo *guzi*. En alto-navarro, desde los primeros textos hasta hoy, la frecuencia de *guzti* parece haber disminuido sensiblemente [...]. En guipuzcoano, se documenta *guzti* en los testimonios más antiguos de este dialecto [...]. Alternan, sin embargo, las variantes *guzi* y *guzti* a partir del s. XVII [...]; se aprecia, no obstante, un predominio de *guzi* especialmente sensible desde mediados del s. XVIII a mediados del XIX [...]. En vizcaíno el uso de *guzti* es casi general en todas las épocas; hay *duzti* en *RS* (96, 259,...; tbn. a menudo *guzti*) y Micoleta (*dustia* 12v)”. Gamizek *guzi*, *guzti* eta *gusti* erabiltzen ditu.

amoreminez,¹¹

[amoreminez] da¹²

coyta-dolorez.¹³

Oy¹⁴ ene laztanari

15

alançaytez¹⁵

balia daquidala

Jauna,¹⁶ amorez,¹⁷

¹¹ *amoreminez*: ‘maiteminez’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoiak askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbilago bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, A21: 2, B8: 12 eta B21: 118); aldiz, A11: 8 lerrokoa egun maiteminak duen adiera arruntari dagokio.

¹² [*amoreminez*] *da*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori: *ene laztanac guraric*, / *ene laztanac guraric eta* / *neurc ala trabajaduric* (A14: 10-12), *Erregue baleu enojadu*, / *enojadu ta* / *asco maneraz afrontadu* (A26: 2-4), *Amea baleu ayn onradu*, / *onrada eta* / *bere semeaz concertaedu* (A26: 14-16), *cerren ecusten* / *even guztia galduric*, / *galduric eta* / *suorrec abrasaduric* (A28: 91-94), *Aurquitu eta* / *dey eguin deuso umilic*, / *umilic eta* / *lisonja ascoz beteric* (A29: 41-44). Hemen, ziur aski haplografiaz kendu da bigarren hitza (*amoreminez*), baina hala metrikak nola errimak errepikatzea eskatzen dute.

¹³ *coyta-dolorez*: ‘koaitaz eta dolorez, atsekabez eta oinazez’; ziurrenik hitz elkartu kopulatibo edo *dvandva* modukoa dugu. Izan ere, *CORDE* datu-basean hamar aldiz agertzen dira juntaturik *cuitas/coitas* eta *dolores*, eta beti hurrenkera horretan; aldiz, ez da behin ere lekukotzen “dolor(es) de cuita(s)” bezalakorik.

¹⁴ *Oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

¹⁵ *ene laztanari* / *alançaytez*: ‘Ene laztana lantzaz joaz’; cf. *DAut*, s.v. *alancear*: “Dar lanzadas, herir con la lanza, repitiendo las heridas”. Gaztelaniaz, behin baino gehiagotan aurkitu dugu, XVI-XVII. mendeetan, *alancear* aditza maitasunarekin lotuta, ‘maitemindu’ adierazteko edo (*apud CORDE*): “¡Ay de mí, cómo te veo por mi amor fuertemente alanceado!” (Fray Luis de Granada, 1554, *Libro de la oración y meditación*) eta “mas vesme el pecho y conoces que su amor me le alancea” (José de Valdivielso, 1622, *El villano en su rincón. Acto sacramental*).

Gaztelania zaharrean bazen *alancear* honekin erlazionaturiko *alanzar* forma, eta azken hau izan behar izan zen, aipatutako adibideetako adieraren kasurik aurkitu ez badugu ere, euskarazko *alanzatu* partizipio baten oinarria, *alançaitz* aditz-izena azaltzeko balio duena; *ae* > *ai* diptongoaren bilakaeraz, ikusi B8: 1 bertso-lerroko oharra. (cf. Oñatiko eskuizkribuan ere *deusai* (< *deusae*) adizkia). Aditz-izen honen objektua den *ene laztanari* sintagmaren datibo markaz denaz bezainbatean, badirudi gaztelaniazko *alancear* aditzaren erregimenaren kalkoa dela.

¹⁶ *balia daquidala* / *Jauna*: ‘lagundu daquidala Jauna, lagundu diezadala Jaunak’; testu arkaikoenetan, *baliatu* aditza NOR-NORI argumentu-egitura duela agertzen zaigu, ‘lagundu’ esanahiarekin: *Çuretaric guiren othoy eguiguçu gracia* / *çure ama anderia daquigula valia* (Etxp. I: 387), *Othoy vehar orduyetan çu çaquičat valia* / *eta othoy çuc governa ene vici gucia* (Etxp. I: 423-424). Lazarragaren eskuizkribuan bi aldiz baizik ez dugu bildu: *balia bequit* (A28: 31), *balia daquidala* (B8: 17).

¹⁷ *amorez*: ‘mesedez’.

ezpa¹⁸ ilgo naiçalaverorren¹⁹ minez.

20

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Poema osoa testu nagusiaren eskuineko zuriunean idatzita dago, testu nagusitik marra kizkur batez bereizita. **1** consolaytan] *c-* tintaz orbanduta. **4** negarres] esk. *negares*. **6** al] *-l* tatxaturik. **7** galteric] *-c* tintaz orbanduta. || jatort] esk. *jatorc*. **8** bearres] esk. *beares*. **10** gucioc] ondoren *ueti*, bi marraz tatxatuta. **11** ecin] *-ç-* tintaz orbanduta. || eguin] *e-* lerroartean idatzita. **13** amoreminez, amoreminez] eskuizkribuan *amoreminez*, behin bakarrik. **16** alançaitetz] *-t-* ez da erabat argia. **20** verorren] esk. *veroren*. || minez] *m-* orbanduta dago.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B8 – Consolaytan naiz da...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

¹⁸ *ezpa*: ‘bestela’.

¹⁹ *verorren*: Bererika jarduteari buruz, ikusi B8: 6 bertso-lerroko oharra.